

• Sihem Bensedrine, Tunisiako aktibista •

«Segurtasunaren aitzakian, diktadoreak babestu ditu Europar Batasunak»

Kazetaria da Sihem Bensedrine (La Marsa, 1950) eta giza eskubideen defentsan aritzeagatik Bartzelonara alde egin behar izan zuen. Orain, egoera berria dela eta, erbestea utzi eta Tunisiara itzuli ahal izan da.

Testua eta argazkiak:

ALBERTO PRADILLA

ZINE EL ABIDINE BEN ALI diktadorearen kontra egitea garesti ordaintzen zen Tunisian eta Omar Mestiri senarrak eta berak alde egin behar izan zuten, mehatxu ugari jaso ostean. Urtarrilaren 13an, Tunisiako iraultzaren ondorioz, Ben Alik ihes egin zuen herrialde-tik eta Bensedrinek etxerako lehenengo hegazkina hartu zuen. Orain, Tunisiako

Eskubideen Taldeko burua da eta garbi ditu helburuak: demokrazia eraikitzea eta zigorga-betasunari amaiera ematea.

23 urteko diktaturaren ondoren, Zine El Abidine Ben Alik ihes egin zuen Tunisiatik. Orain zer?

Ben Aliren erregimena erori da, baina bi hila-betetan ezinezkoa da 23 urte iraun duen dik-



tadura amaitzea. Antzinako erregimenaren kideak Estatuko egitura guztietatik, ekonomikoetatik zein politikoetatik kentzea ezinbestekoa da. Gure erronka indar atzerakoi hauen guztien aurka demokraziarako bidea egitea da. Indar horiek dirua eta boterea dute eta lanean ari dira. Biziki indartsuak dira eta horregatik, gure borrokaren helburu nagusiak izan behar du hauek kanporatzea.

Onartu beharko duzu aurrerapausoak eman direla. RCD, Ben Aliren alderdi ohia, desegin da eta Polizia Politikoaren rola bertan behera utzi du Beyi Said Essebsi lehen ministro berriaren Gobernuak.

Egia da RCD deuseztatzea lortu dela, legalki behintzat. Baina adar asko ditu. Baditu, gutxienez, 30.000-40.000 arduradun inguru, ustelkerian, errepresioan eta iruzurrean jardun direnak. Orain beraingana jo behar dugu, Tunisia berritik kanpo uzteko. Bestela, antzinako erregimeneko jendez beteriko alderdiak barra-barra nola sortzen diren ikusiko dugu. Joera hau nola gelditzen dugun aztertu behar dugu. Hauteskunde arau berria ezartzea aukera bat izan daiteke. Gordetzen duten zilegitasun guztia galtzeko erabili behar dugu araua, alderdi horiek ez daitezen bihurtu mozorroturiko RCD berri bat. Burubelarri gaude horretan.

Barne Ministerioak adierazi du Polizia Politikoak desegin duela.

Esan beharra dago askotan eskatu dugula Polizia Politikoak desagertzea eta egia da talde bat desegin dela, baina beste batzuk mantentzen dira. Barne Ministerioak dioten moduan, 200 polizia baino ez dira. Eta ez gaude pozik, ongi dagoelako talde bat desegitea, baina lan asko gelditzen da egiteko. Antolakuntza berria osatzea nahi dugu, gizarte zibilak proposatuko duena, Polizia izan dadin Tunisiako herriaren eta iraultzaren alde lan egingo duen talde errepublikano bat. Aldiz, iraultzaren aurka ari da Polizia eta hori oso arriskutsua da.

Europak Tunisiako trantsizioa kontrolatzeko ahalegin ugari egin du eta badiardi jarrera hau bultzatzeko Espainiako Estatuko presidente José Luis Rodríguez Zapatero Tunisiara joan zela Europar Batasuneko lehen ordezkari gisa. Europar badira Tunisiako prozesua eta Espainiako trantsizioa antzekoak direla esaten duten sektoreak.

Gaur egun, diktaduran burubelarri aritu den jende asko dago. Ez soilik diktadura babes-



“Tunisiarrok ez dugu arazorik, ez kristauekin ez juduekin. Islamista moderatuek ere ez dute inolako arazorik. Tunisian ez dago muturreko jenderik, Polizia halako etsaitasunak sortzen ahalegintzen bada ere”.

ten, baita etekinak ateratzen ere. Orain mozorrotuta daude eta telebistan iraultzailetzat aurkezten dute beren burua, baina ezin dugu ahaztu Ben Aliren hedabideetako arduradunek euren lanpostuak mantendu dituztela. Diktaduran zeuden komunikabide berberak jarraitzen dute eta kontrakoa badiote ere, iraultzaren porrota nahi dute.

Ministrotei proposamen zehatzak egin dizkiegu. Adibidez, aduana: pertsona ustel asko zegoen aduanan, denak Ben Aliren aldekoak. Gure lana ez da amaitu. Baina zaila da, oraindik botere asko daukatelako. Gure helburua ez da soilik alor politikoa edo ekonomikoa garbitzea, jendartean eragina duen agintari oroengandik zikinkeria kentzea baizik.

Onartu beharra dago tunisiar gizartea Espainiako baino harago joan dela, diktadore bat eta behin-behineko bi gobernu bota dituztelako. Non gaude une honetan?

Gertaera iraultzailea izan dugu: diktadura apurtzea. Kanean izan diren gazteak, manifestazioak... Ezin digute hori kendu. Baina legeari dagokionean, zeregin asko dugu oraindik, errepresioan oinarritzen zen erregimeneko legeak ditugulako. Adibidez, legediak ez ditu errespetatzen adierazpen askatasuna eta biltzeko eta elkarteak sortzeko eskubidea. Lege guztiak antzinako erregimenekoak dira, nahiz eta inork ez dituen errespetatzen. Aldaketarako proposamenak aurkezten ari gara. Halere, askatasuna eremu legegiletik at garatzen ari gara, legeak berez eskubideen urraketa bermatzen duelako.

Egoera soziala nabarmendu dute ezkerreko analistek, baina txirotasuna mantentzen da momentuz. Zein ekimen egingo da hori gainditzeko?

Erronka handia da hori. Ben Ali eta bere mafiak alde egin dute herrialdetik, baina beraien jendea hemen utzi dute, sistema zuzentzen jarraitzeko, alor ekonomikoa barne. Momentuz, ez da oso ondo garatu enpleguari eta eskualde txiroenei dagokiena. Jarduera ekonomikoa orekatzeko ari gara lanean eta Europar Batasunarekin hitzarmenak sinatu ditugu, egoera kaskarrean dagoen Tunisiako ekonomia berpizteko. Adibidez, Espainiako Estatuko presidente José Luis Rodríguez Zapatero Tunisiara etorri zen iraultzaileak sostengatzeko konpromisoarekin. Ni neu Zapaterorekin bildu nintzen eta proposamenak aurkezteko esan zigun. Hori

bai, Europako agenda onartzeko prest ez gaudela argi eta garbi utzi genion. Gure eskaerak onartzeko hitza eman zuen eta betetzea espero dugu.

Europako Gobernuak Ben Ali sostengatu zuten bere garaian.

Egia da. Eta hori dela-eta salatu dugu Euro-par Batasunak ez zuela jarrera duina izan Ben Aliren diktadura-rekin, azken honek ez zituelako bete Europar Batasuna sortzeko gutunean azaltzen diren baloreak. Segurtasunaren aitzakian, gure eremuko diktadore guztiak babes-tu ditu EBk: Ben Ali, Gaddafi, Bouteflika... Guztiek izan dute Europaren sostengua, legez kan-poko etorkinen aurrean babes gisa ikusi dituztelako. Europako agintariekin bildu gara eta akatsak izan dituztela aurpegiatu diegu. Tunisian izan duten politika zuzendu behar dutela esan diegu, interes bateratuak ditugula-ko. Hau ez da zuen aurka doan iraultza bat, zuekin batera eraikitakoa baizik. Oso gertu gaude, bazkideak gara eta demokrazia eta herrialdeko ondasunak bertan geratzea lor-tzen badugu, gure gazteak zaindu ahalko ditugu eta ez dute kanpora joan behar izango, legez kanpoko etorkin gisa.

Islamismoarekiko beldurra Europatik bultzatu-tako ideia da. Baina Tunisian ere eraso erlijio-soak salatu dituzte azken egunetan.

Probokazio asko dago, eta horien atzean Polizia Politikoa dago: muturreko jarrerak dituen alderdia osatu dute. Jendearen artean izua zabaltzeko nahi dute. Djerbako sinagoga-ren aurrean egin diren manifestazioen eran-tzule dira, adibidez. Iraultza besteen aurka egin behar dela erakutsi nahi dute, baina gezur galanta da hori. Tunisiarrek ez dugu arazorik, ez kristauekin ez juduekin. Islamista moderatuek ere ez dute inolako arazorik.

"Gure helburua ez da soilik alor politikoa edo ekonomikoa garbitzea, jendartearen eragina duen agintari ororengandik zikinkeria kentzea baizik"

Tunisian ez dago muturreko jenderik, Polizia halako etsaitasunak sortzen ahalegintzen bada ere.

Zigorgabetasunaren aurkako borrokan, tortura gai garrantzitsua da.

Torturatuen kopurua hamarnaka milakoa da. Ben Aliren lehen urteetan ikerketa oztopatzen zuen sistema ezarri zen eta salake-taren auziak Poliziaren esku buka-tzen zuen. Ondorioz, torturatu zuen polizia beraren aurrean ager-tzera behartzen zuten eta jendeak ez zuen salaketarik aurkezten. Joera hori 2000. urte hasieran alda-tzea lortu zen, torturatuen lehen zerrenda argitaratu zenean. Orain, beste pentsamolde bat dago.

Bestalde, torturak beherako bidea zera-man, harik eta George Bushen terrorismoa-ren aurkako gerra indarrean jarri zuen arte. Europaren onespenearekin, tunisiar ugarik torturak jasan zituen, Alberto Cruz Justizia ministroaren teoriaren harira Bush Adminis-trazioak martxan jarri zituen kartzela sekre-tuetan. 200 torturatzailer baina gehiagoren izenak eman ditugu eta ikerketa martxan jar-tzeko eskatu dugu. Zigorgabetasuna ez da bakarrik Tunisiako Gobernuaren ardura; beste gobernu batzuk, Frantziakoa kasu, ziprztinduta daude.

Zein arazo aurkitu dituzue bide honetan?

Justizia Ministerioak esku usteletan segitzen duen bitartean, ezin gara zigorgabetasuna-ren aurka aritu. Egoera honi amaiera emate-ko borondate politikoa beharrezkoa da, ez da bat-batean etortzen den zerbait. 30 edo 40 torturatzaileraren aurkako prozedurak abiatu beharko dira adibidez. Justizia da dik-taduraren despotismoarekin zerikusia izan dutenen babesle nagusia. Oraintxe bertan, desagerturiko lau pertsonen kasuak ditugu mahai gainean. ■



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



**Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua**

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com